Mendizabalen desamortizazioa Espainian (1836)

Espainiar liberal aurrerakoiak boterean zeuden garaian gauzatu ziren XIX. mendeko desamortizazio nagusiak: Mendizabalena 1836an, eta Madozena 1855ean. Juan Alvarez Mendizabal finantzari liberalak eman zion izena lehen desamortizazioari, ogasun ministro gisa berak agindu baitzuen ondoko testuan ageri den dekretua, azalpena Maria Kristina erreginaorde gobernatzaileari zuzenduz. Bertan antzematen den bezala Elizaren lurrak desamortizatuz Antzinako Erregimeneko ondasun egiturak aldatu nahi ziren, burgesiaren jabetza pribatua bultzatu, merkatua liberalizatu eta Estatuaren zor publikoa gutxitu.

Andrea:

Estatuaren jabetzakoak izatera heldu diren ondasunen multzoa saltzea, ez da soilki promesa solemne bat betetzea eta nazio-zorrari garantia positiboa ematea horretarako salmenten emaitzen osoki berdina den amortizazioa eskainiz; horrez gainera, zorion publikoaren iturri ezin oparoago bat irekitzea ere bada, aberastasun hila berpiztea da, industriaren eta zirkulazioaren kanal itxiak zabaltzea, herria bere gauzekiko atxikitzea berezko maitasun sutsuaz, aberria handitzea, beronekin elkartzeko lotura berri eta sendoak sortzea; hots, azken buruan, Isabel II.aren tronu gorenarekin identifikatzea, ordena eta askatasunaren sinbolo gisa. [...].

Berorren Maiestateak onar dezan aurkezteko ohorea dudan dekretu honek, nazioarentzat jadanik lorturik dauden ondasun horien salmentari buruzkoak, eta bere ondorio materialei buruzkoak, zor publikoaren kopuru handia urritzeko mesedea ekarriko du; halaber beharrezkoa da dekretu hau bere joeran, bere helburuan eta are bere emaitzak lortzeko erabiltzen dituen bideetan, jabeen familia handi bat sortzeko ideia nagusiarekin lotzea, horrekin kateatzea eta horrexetan oinarritzea, jabe horien gozamena eta existentzia gure erakunde gorenen erabateko garaipenean sostenga dadin nagusiki. [...]

1. artikulua. Oraindik aurrera salgai deklaratzen dira desagerturiko komunitate eta korporazio erlijiosoenak izan diren mota orotako lur eta ondasun higiezin guztiak, eta halaber edozein arrazoi medio nazioari esleitu zaizkion bestelako lur eta ondasun higiezinak, bai eta aurrerantzean bere eskuetara igaroko direnak ere, nazioari esleitzen zaizkion une beretik.

2. artikulua. Neurri orokor honetatik salbuesten dira gobernuak zerbitzu publikoetarako erabiliko dituen eraikinak, edo arte monumentu gisa kontserbatuko dituenak edo nazioaren ekintza gogoangarriak omentzeko eraikinak. [...]

Gaceta de Madrid, 1836-II-19ko Erret Dekretua.[1]

[1] [Iturria: EHUra sartzeko 2000/2001 ikasturteko hautaproba. Oro har EHUk egindako euskarazko itzulpenari segitu zaio, baina, bertan zeuden zenbait akats emendatzeko, Kondaira taldeak hainbat pasartetan itzulpena birmoldatu du jatorrizko (gaztelaniazko) testuaren arabera. Halaber EHUko testuan jaso gabe zeuden dekretuaren lehen bi artikuluak euskaratu eta erantsi ditu Kondaira taldeak].